

ZM

ZORROTZ MORROTZ

57. ZBKIA, 2019ko MAIATZA

JONE MARTÍNEZ-PALACIOS

UNBERTSITATE IRAKASLEA ETA IKERLARIA

EMAKUMEAREN ONGIZATE ETA OSASUNERAKO GUNEA

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

Bilbon euskaraz



B

Bilbao


▶ www.bilbaoeuskaraz.eus

Zorro Delegatuak. Aurrezkitik inbertsiorako bilakaera.

- 3.500 kudeatzaile ziurtatutako gaitasunarekin.
- Zorro konbinagarriez osatutako 4 eredu.
- Inbertsioetan Estatuko 5. kudeatzailea.

Kutxabank Gestión SAU IKESK
Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo.

Kutxabank, SA, Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo.
IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.
5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.



PUBLIZITATEA

Lamarck-en teorian ingurumeneko aldaketei egokitzeko espezieen bilakaera azaltzen da. Kutxabankek merkatuen aldaketei erantzuten die, fondoan Zorro Delegatuekin. Inbertsioetarako zerbitzu honek bere eskarmentu eta profesionaltasun osoa jartzen du bezeroen esku.

kutxabank



Komunikabideetan agerraldiak, hitzaldiak, erakusketak, eta abar 50. urteurrena ospatzeko

Azken bolada honetan agertutako albisteei esker, ziur aski badakizue FEVE trenbideko lurperaketa behingoz gauzatu dadin pausuak ematen jarraitu dugula. Gure aldetik, zuhurtasunez baina pozik, azken hau behin betikoa izango dela uste dugu.

Auzo Elkartearen 50. urteurrenean ere sartuta gaudela informatu dugu azken aleetan. Honen harira, urte osoa iraungo duen programa bat garatzen ari garela esan behar dugu. Hitzaldiak, erakusketak, eta komunikabideekin ere egon gara auzoko historia, borrokak, lorpenak eta gaur egun lantzen ari dena (eta nola ez etorkizunean landuko dena ere) zabaltzeko.

Beste behin ere aipatu behar da Zorrotza auzo bizia dela, eta auzokide guztiok gizarte-egitura oso garrantzitsua osatzen dugula. Beraz, animo eta aurrera!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz

Zorrotzako kultur aldezakaria
57. zenbakia. 2019ko maiatza

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia
Zalbidea, 7 behea
48013. Zorrotza. Bilbo
Emaila: zmorrotz@gmail.com

 facebook.com/ZorrotzMorrotz
 [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

Koordinazioa: Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Ainara García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkizu
- Saúl Kurto

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldezakariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukieren erantzule bakarra




BAR VENECIA
Especialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak
Abaro estrata 10
AUPA ATHLETIC



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**
Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46

Jai-Alai
kafetegia



Abato estrata, 12
94 490 12 59

Zorrotzak ere “klika” egin zuten



Korrika txikia eta beste hainbat ekitaldi ere antolatu ziren 21. Korrika iragartzeko

Apirilaren 10ean, Euskal Txokoak babestuta, auzoko hiru ikastetxeek, alegia, Zazpi Landa, Fray Juan eta Institutua, Korrika Txikia antolatu zuten. Goitik beherako ibilbideari jarraituz, lasterketa institutuan bukatu zen, ikasle guztiak batera egindako dantzarekin.



Aurreko asteburuan, euriak ezin izan zuten giro ona zapuztu, eta Ibai-Artek prestatutako erromeriak eta Sakatu elektrotxaranga dantzan jarri zituzten Gaztetxera bertaratutakoak. Tartean, herri bazkarian indarrak hartzeko parada izan zuten euskaltzaleek.

Hori gutxi balitz, apirilaren 12an, bertso afari ederra antolatu zen, eta 10 de Fray Juan taberna bete zuten Arkaitz Estiballes eta Ibon Ajuria bertsolariak aditzera bertaratutako euskaltzaleek.

Naroa Peña

Bi urterik behin antolatzen den euskararen aldeko lasterketa erraldoiak Zorrotza zeharkatu zuen berriro ere. Euriak izan zituen auzoko euskaltzaleak gogaitu eta auzotarren erantzuna ez zen nolanhikoa izan. Jendetzak "klika" egin zuen apirilaren 11ko goizean.

Lasterketaren lekukoa zorrotzarron eskuetatik ere pasatu zen, nola ez! Kastrexanatik heldu, eta auzoan ibilbide luzea egin ondoren, Basurtura agurtu genuen 21. Korrika. Txinbotarrak konpartsa izan zen lekukoa jaso zuen lehenengo. Gure Lurra, Gaztetxea, Zorrotza F.C., Institutua, El 10 de Fray Juan taberna, Zuri Gorri Athletic zaletuen elkarte, Karrilerue zaleok kuadrilla, Harrapari taldea, eta Askabide kultur elkarte: hauen guztien artean banatu zen lasterketa erraldoiaren lekukoa eramateko ohorea.

Antolatzaileek auzoak emandako erantzun bikaina eta modu batez edo bestez eman zuten laguntza eskertu zuten.



...Imajinatzen duzu auzoa merkataritzarik gabe?

**ESKAINTZARik ONENA
ZORROTZatik
IRTEN BARIK**

**Berton
kontsumitu**



Clown jaialdiaren hamargarren edizioak ospe handiko bost konpainiaren partaidetza izango du

Zorrotz Morrotz

Aurrerapen gisa, ostegunean, 18:00etatik aurrera, umek ipuin-kontalari saio batekin gozatu ahal izango dute Zorrotzako Udal Liburutegian, Bego Alabazanekin eta euskaraz eskainiko duen Naturaren magia ikuskizunarekin.

Kaleko programazio eszenikoa ostiralean, maiatzaren 3an, jarriko da martxan, euskal konpainiek eskainiko dituzten bi ikuskizunekin, 18:30ean eta 19:30ean, Azokako parkean. Lehenengoa Goitibera izango da, Yijaaa! ikuskizunaren aurre-estreinaldiarekin. Bertan bi pertsonaia bitxik gizakiak inoiz egindako lehenengo oinarri-jauzia egin gura dute, horrela, euren izena historian grabatuz. Ondoren, bertako eszenan oso ezaguna den Ganso & Cía clownaren txanda izango da, familia osoari zuzendutako Babo Royal ikuskizunarekin, edo gauza bera dena, 50 metro karratuko inperioa, errege lunatikoa eta trobadore bitxia.

Clown Zorrotzaren aurtengo edizioa larunbatean –maiatzak 4– amaituko da, arratsaldeko 18:00etan hasita Azoka Plazan eskainiko diren hiru ikuskizunekin. Galiziako Sincronacidas konpainiak jasoko du oihala, Oh limpiadas ikuskizunarekin. Bi garbitzaile ametsen munduan murgiltzen dira, eta euren lan jardunaldia Joko Olimpikoetako lehiaketa balitz bezala eskaintzen da.

Ondoren, Madrilgo Mireia Miracle clownaren txanda izango da, Rojo ikuskizuna aurkeztuz. Pailazo bat maleta baten barrutik irtengo da, eta ikus-entzuleak bere familia bilakatuko ditu.

Aurtengo edizioari Granadako Las Primas taldeak esango dio agur, Margarita is Dead ikuskizunarekin. Amama agurtzeko sei lehengusina elkartu dira. Margaritak utzi dien oinordetza baliotsua: bizitzan erabakitzen duten guztia egiteko lan gogorra izango da, gizarteak eurentzat prestatuta dituen rolei kasurik egin barik.

Barinaga kalea birgaitu dute



Zorrotz Morrotz

Hiru hilabeteko obrak burutu ondoren, Bilboko Udalak oinezkoek eta ibilgailuek eroso-eroso erabiltzeko moduan jarri du Barinaga kalea. Lanak martxoaren amaieran amaitu ziren. Horretarako, kale horretan oinezkoek eta ibilgailuek batera erabiltzeko eremu zabalak atondu dira eta oinezkoentzako bideak hobetu dituzte, irisgarritasunari buruzko araudia bete-zearekin batera. Barinaga kaleko espaloi zabalera 2,85 metroraino luzatu da.


Obrei ekin baino lehen, Barinaga kalea zirkulatzeke noranzko bakarreko galtzada batez osatuta zegoen eta aparlekuak pintatu barik zeuden bere albo bietan. Ia ez zegoen espaloirik atari bakoitien alderdian, Done Mikel plazara sartzeko kalea zeharkatu osteko alderdiraino. Gainera, edateko ura banatzeko sarea eta euriaren uren hustubideak berrizatu dira.



Aldapeta etxaldea

Zorrotza Kastrexana errepidean hasi eta Herbotarren lurretan (gaur egun desjabetuak eta udal parkea bihurtuak) amaitzen da kale hau. Izenak adierazten danetz mendi egalean dagozan aldatzetan kokatzen da, Ignazio Miranda auzune gainean eta Zazpi landa etxetalde azpian. Hirurogei hamarkadan egindako etxe blokeak osatzen dabe kalea, erdiko aldean, eskumaldean dagozan etxe eraikin bat izan ezik (hauek zaharragoak dira). Frai Juan eskola erdibidean kokatzen da eskerraldean. Eskola hau hamarkada horretan eraiki zan ere, beheko eskola zaharra ordezkatzeko. Pizka bat beherago akademia bat zegoen, eskola aurreko etxetako lonjetan.

LEHEN



ORAIN



MADNESS KAFETEGIA
 Elena eta Javier
 Zalbidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
 48013 BILBO



MADNES

Tel. 94 441 62 75

S A Z
 OKINDEGIAK

Zorrotzako labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
 Tfno. 94 441 09 71
 Zorrotza - 48013 BILBO

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
 Clara Campoamor, 6
 48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarzug)
Eguneko menua

“ Denboraldi bat hemen bizi izanda gizarte-mailen arteko ezberdintasunetara oso erraz ohitzen garela jabetzeko aukera izan dut ”



GORKA BASAGUREN

Bizitokia: Bogota (Kolonbia)

Noiztik: 2014. urtetik.

Adina: 32 urte

Lanbidea: Ikus-entzunezko komunikatzailea

Burua eta bihotza bat eginda, neskalogunarekin Kolonbiara joatea erabaki zuen Gorkak bizimodu berri baten bila. Harez geroztik bost urte pasa dira. Hasieratik dena argi eduki eta “oraindik ez dela damutu” dio.

Ibai Barrios

Nolatan eta zergatik joan zinen Kolonbiara?

Madrilen bizi nintzela, krisi famatuaren garaian, nire neskalogunari lanpostu on bat eskaini zioten Bogotan eta bere herrialdera itzultzea erabaki zuen. Orduan bi aukera suertatu zitzaizkidan: Bilbora itzultzea edo Kolonbiara joatea. Bigarrena aukeratu nuen; oraindik ez naiz damutu.

Oso ezberdina da hango bizimodua hemen-goarekin alderatuz?

Bizimodua ezberdina da bai. Garraiobideak, adibidez, ez daude guztiz ondo antolatuta eta auto-ilarak pazientzia galtzeko modukoak dira. Bilbon era guztiak garraiobideak dauzkagun bitartean, Bogotan autobusak eta taxiak bakarrik daude eta 8 milioi biztanle gara! Zorionez, bizikletan ibiltzeko hainbat bi-

degorri daude. Gauza gehienak merkeagoak dira hemen. Hiruzpalau euroren truke bazkari ona aurkitu dezakezu; bestalde, liburuak, adibidez, oso garestiak dira (pesotan ordaintzen badituzu). Hori dela eta, liburu pirateria merkatu erraldoia dago, gauza pentsaezina han. Kale salmenta asko dago, eta kolore eta tamaina ezberdinetako fruta piloa aurkitu dezakezu. Hemen bizi naizenetik fruta askoz gehiago jaten dut.

Gogorra egin zitzaizun hango lan eta bizi ohituretara moldatzea?

Hasieran pixka bat, hemengo familien ohiturak eta segurtasun arazoak direla eta. Jendea nahiko paranoikoa da segurtasunarekin, baina ez da horren txarra. Kontuz ibiliz gero eta Kolonbiarren hamaikagarren mandamendua jarraituz gero ez dago arazorik. Hamai-kagarren mandamenduak “No dar papaya”

dio. Papaya ematea nolabait norbera arris-
kuan jartzea da, mugikorra zein tokitan (es-
kuan adibidez) eramatea, Caracas kaletik
gauean oinez ibiltzea, eta abar. Esaera bitxi
asko dituzte hemen.

Nolakoa da ikus-entzunezko komunikazioa- ren lana Kolonbian?

Azkeneko lau urte eta erdian komunikazio
agentzia batean egon naiz lanean ikus-ent-
zunezko produkzio arloan. Gobernuarekin
lotutako hainbat erakundeentzat egiten ge-
nuen lan, baina azkeneko gobernu alda-
ketaren eta beste arazo batzuen ondorioz
enpresa itxi eta langile guztiak kaleratu gin-
tuzten. Hortaz, orain lan bila nabil hemen.
Ikusi dudanez, ez da hain erraza kazetari
bezala edo hemengo aktualitate arloko ko-
munikabideetan atzerritarrek kontratatzea
(beste lanbide batzuetan gauza ezberdina
da).

Zer da han gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Kolonbiak duen natura eta kultur aniztasu-
na da gehien gustatzen zaidana. Herrialdea
zeharkatzeko aukera izanez gero, edozein
ingurugiro aurkitu dezakezu: basamortua,
oihana, basoa, bi ozeano, mendikateak,
sabana... Eta aberastasun hori ez da natu-
rarekiko bakarrik: Espainiar Estatu barruan
hainbat hizkuntza erabiltzen badira, hemen
60 hizkuntza ezberdin baino gehiago dituzte,
nahiz eta asko oso komunitate txikitik era-
bili edo galtzar dauden. Kolonbia erraldoia
da eta mundu ezberdin asko daude hemen
barruan sartuta. Bestalde, gutxien gustatzen

zaidana toki batzuetan ikusten den pobrezia
da, eta denboraldi bat hemen bizi ostean gi-
zarte-mailen arteko ezberdintasunetara zein
erraz ohitzen garen konprobatzeko aukera
izan dut.

Auzora askotan bueltatzen zara?

Urtean behin gutxi gorabehera.

Zeren falta sumatzen duzu gehien?

Familia, baina aurten badatoz bisita egitera.
Urtaroak ere bai. Hemen ez dago urte sa-
soirik, ia urte guztian zehar eguraldi berdina
dago eta arratsaldeko sei eta erdietan gaua
da beti. Pixkat monotonoa izan daiteke.

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua?

Orain lan bila nabilela eta freelance bezala
proiekturen bat egiten dudan bitartean, Bo-
gota bizikletan zeharkatzen dut (hiri erraldoia
da eta). Modu honetan toki berriak ezagutze-
ko denbora gehiago daukat.

Zein izango litzateke zure ustez hango ezaugarriarik adierazgarriena?

Hemengo jendeak aurrera egiteko duen gai-
tasuna da, nire ustez, ezaugarriarik adieraz-
garrienetarikoa. Hemen dagoen ekosistema
eta paisaia aniztasuna, jende eta kultur aniz-
tasuna, bizitzeko era ezberdinak... ere aipatu
beharrekoak dira.

Eta bukatzeko, Zorrotzara berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu edo han geratuko zara betiko?

Momentuz hemen jarraitzeko asmoa daukat.
Etorkizunean batek daki.

**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

**GORA
HERRIAI!**

**★ independentzia!
SOZIALISMOA!**



ASKABIDE
kultur elkartea
ZORROTZA

EMAKUMEAREN ONGIZATE ETA OSASUNERAKO GUNEA

Emakumeen aisialdirako aukera paregabea

Testua eta argazkiak: Aitor Marín

Cristina Espinosak 40 urteko emakume geldiezinatzat aurkezten du bere burua, eta egonezin horren ondorioz “Emakumearen Ongizate eta Osasunerako gunea” sortu zen duela bi urte. Seme-alabak eskolan edo eskolaz kanpoko ekintzetan dauden bitartean, amek “aisialdi ekintza gutxi” dutela ohartu zenean buruari bueltak ematen hasi zitzaion Cristina. Emakumeentzako aisialdirako zen hutsunea sumatzen zuen Espinosak, lehen existitzen ez zena. Izan ere, gogoan du bere ama, zorrotzarra bera, jubilatuentzat existitzen zen “Centro de Mujeres” esaten zioten ekintzara joaten zela. “Ama pila bat batzen ziren bertan. Hitzaldiak, ikastaroak, txangoak eta abar egiten zirela gogoan dut, baina antza monitorea zen emakumea joan egin zen eta ekintza deuseztu zen nolabait”.

Auzoka Komunitate Zentroa zabaldu zenean, guraso elkarte bidez, emakumeentzat soilik sortutako ekintza hau pres-

tatzen hasi zen emakume taldetxo bat. “Emakumeak garelako gehienbat seme-alabez arduratzen garenok, ikastetxeetara eramateaz, beraiekin egoteaz, eta abar” azaldu du Cristinak.

Cristinak azaldu duenez, berak ez du tabernetan egotea gustuko, ezta kafea ere, eta polikiroldegia edo ordaindu beharreko beste eskaintza batzuk izan ezik, ez zuen aisialdi aukera handirik ikusten emakumeontzat. Aldiz, yoga, meditazioa edo horrelakorik bai du gustuko: “Duela bi urte ikastetxean amantzat eskolaz kanpoko jardueren artean, yoga bazegoen”. Eta ikastaro horren monitorea proiektuaren berri eman zion Cristinak. Irakasle bera oso motibatuta agertu zen eta pasa den ikasturtean hasi zen egitasmoa, oso emaitza onekin: “Yoga, hipopresiboak eta horrelakoak egiten genituen, eta hitzaldiek in zartzaten genituen”. Baina bestelako ekintzak ere izan dituzte, hala nola meditazioa, talde-dinamikak, adierazteko teknikak, eta tango dantza saioa eta guzti!

2017ko urrian eman zituen Emakumearen Ongizate eta Osasunerako Guneak lehenengo pausoak. Ideia prestatzen eta proiektuari forma eman ostean, Auzokan aurkeztu zuten. Komunitate Zentroak oniritzia emanda, urtarrilean hasi ziren batez beste 15 emakumeren parte hartzearekin. Emaiza oso positiboa izan zen. Auzoan eta sare sozialetan Auzokak jarritako kartelen bidez ezagutzera eman zen proiektua, eta baita guraso elkarteetan zirkular bat banatuta ere.

Pasa den ikasturtean yoga eta emakumeontzako hitzaldiak izan ziren nagusi batez ere. Ikasturte honetan ikaz, proiektua apur bat okerrago dabil, monitoreak bilatzea zailago izaten ari baitzaie eta parte hartzeak behera egin du: "Hona etorri beharreko monitoreak boluntario datoz. Zerbait sinbolikoa ordaintzen zaie galerarik ez izateko bidaietan, eta iaz egondako batek utzi dio lana lortu duelako ordu horretan". Pasa den ikasturtean guraso elkarteetako kideek musutruk izan zuten ekintzetan parte hartzeko aukera ikasturte osoan. Ez kideek aldiz, 5 euro urtean ordaindu behar izan zuten. Aurten, aipatutako gastuei aurre egiteko kuota berria ezarri dute ikasturte osorako: 25 euro guraso elkarteetako bazkideentzat eta 50 euro ez bazkideentzat.

Penaz hartu du Cristinak aurten izandako beherakada. "Aurten ez da hainbeste jende animatu eta nire ustez ondo dago emakumeok gure guneak eta gure aisialdirako tarte bat hartzea".



Astean ordubete ematen dute Emakumearen Ongizate eta Osasunerako gunean bildutako emakumeek, astelehenero arratsaldeko 19etatik 20etara. zabaltzeko asmorik noizean behin izan badute ere, Auzokan dagoen jarduera kopuruak ezinezkoa egiten du. "Zaila da Auzokan dagoen hainbeste jarduerarekin batak bestea ez zapaltzea ordutegian", azaldu du Cristinak.

Espinosak dei egiten du alde batetik emakumeentzako jarduerak antolatzeko prest dagoen edonor hurbiltzeko gunera, ekintza berriak izateko, eta bestetik auzoko emakume orori parte hartzeko, "bere buruari eta auzoko beste emakume batzuekin denbora tarte bat eskaintzeko, merezi dugulako".



**ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefona: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



JONE MARTÍNEZ-PALACIOS:

Unibertsitate irakaslea eta ikerlaria

“Ez urduri jarri” moduko esaldiak erreboltak baretzeko erabiltzen dira maiz”

Gure auzoan hazitako unibertsitate irakaslea eta ikerlaria dugu Jone. Politika eta Administrazio Zientzietan doktore, feminismoa eta prozesu parte-hartzaileetan espezialista da. Berriki, “No te pongas nerviosa” izeneko liburua argitaratu du. Bertan, baretasunaren eta urduritasunaren inguruko hausnarketa egiten du, zapalkuntzarekin duten zerikusia aztertuz. Berarekin luze mintzatu gara eta oso ikuspuntu interesgarriak eskaini dizkigu.

Zerk bultzatu zintuen politika ikasketak hautatzera?

Dirudienez, txikitan albaitaria izan nahi nuen. Geroago, institutuan, filosofiak izugarri erakarriri ninduen, eguneroko gatazkei buruz hausnartzeko aukera eman zidalako. Esperientzia horrek era naturalean eraman ninduen politika-ikasketak hautatzera. Esan beharra dago ama ez zegoela nire erabakiarekin ados -lan aukera eskasak izango nituelakoan- eta, ideia hori burutik kentzeko, Politika ikasi zuen bere lagun bat aurkeztu zidan. Aitzitik, pertsona hori ezagutzeak nire nahia handitu besterik ez zuen egin. Gizarteetan ematen diren botere harremanak ulertzea bilatzen nuen eta tresna hori Politikan aurkitu nuen.

Ekofeminismoari esker murgildu zinen ikerkuntza politikoan, nola gertatu zen hori?

Politikako 3. mailan nengoela Bartzelonara joan nintzen Seneca beka batekin ikastera. Han bertan, buru belarri ikasi nuen eta gizarte mugimendu asko ezagutu eta ikertzeko aukera izan nuen. Orduan, nire irakasle bati, Iñaki Barcenari, alegia, hurrengo ikasturtean ikerketa beka bat lortzeko laguntza eskatu nion. Bera mugimendu ekologistan ibiltzen zen eta oso gai interesgarria aukeratzen lagundu zidan: ekofeminismoa, hau da, emakumeak buru dituzten mugimendu ekologistak. Berezi, Chipko mugimenduak, hots, zuhaitzak besarkatzen dituzten emakumeen mugimenduak, liluratu ninduen. Indiako herrixketatik jaiotako mugimendua izan zen hori, beraien ingurumena suntsitzera etorritako enpresak geldiarazteko. Gandhi-ren erresistentzia-molde ez-biolentoa oinarri, emakumeak zuhaitz-tara lotzen ziren makinei lan egitea eragotziz. Sekulako oihartzuna izan zuten eta hein batean beraien helburua lortu zuten.

Nolakoa da zure eguneroko lana?

Azken urteotan irakasle, ikerlari eta kudeatzaile lanetan ibili naiz, beraz, oso estresatuta. Berriki, kudeaketa lanak utzi ditut eta pozarren dago. Irakasle lanak denbora handia hartzen dit, izan ere, eskolak eskuz idazteko ohitura daukat. Bestetik, ikasleekin egotea eta eztabaidatzea ere irakasle lanaren atal handi bat da. Baina gehien maite dudana ikerlari lana da: liburutegian testuak aztertu,



“Gizarteetan ematen diren botere harremanak ulertzea bilatzen nuen eta tresna hori Politikan aurkitu nuen”

mugimenduetako jendea elkarriketatu... Bakarka egiten dudan lana da, eta nahiko lotsatia naizen aldetik, hori dut gustukoena.

Parte Hartuz Masterrean klase ematen duzu, zertan datza?

Parte Hartuz gizarte zientzietako ikerketa-talde bat da, 2002an sortua. Nazionalismoak, administrazio publikoak eta feminismoak demokrazia parte-hartzailearekin duten lotura aztertzen dugu. Ez hori bakarrik, esku-hartze proiektuak aurrera eramaten ditugu, errealtatean eragiteko. Ia hasieratik Partaidetza eta Komunitate Garapeneko Masterra eskaintzen dugu eta bertako ikasleek auzo edo herrietan praktikak egiten dituzte, bertoko gizartearen parte-hartzea aztertu eta hobetzen laguntzeko.



“ Gehien maite dudana ikerlari lana da: liburutegian testuak aztertu, mugimenduetako jendea elkarrizketatu... ”

Zure liburu berrian, “No te pongas nerviosa”, urduritasuna eta baretasuna aztertzen dituzu, zergatik?

Baretasuna berez kapital bat delako. Gaur egun, posizio pribilegiatu batean egoteko, badira diruaz, jakintzaz edota gizartean okupatzen duzun karguaz gain beste baldintza sinboliko batzuk ere; horien artean, baretasuna. Autokontrolaren eta fidagarritasunaren ideia transmititzen duelako. Ikusi bestela Euskadin izan azken lehendakariak nolakoak izan diren... Are, urduritasuna menpeko posizio sozialetan dauden gizabanakoekin lotzen dugu: emakumeak, txiroak, etorkinak... Liburuan horren inguruko hausnarketa egiten dut eta, halaber, “no te pongas nerviosa” moduko esaldien atzean maiz erreboltak baretzeko asmoa dagoela azaltzen dut.

Zure bizipen pertsonaletan oinarritu zara?

Liburuaren hasieran bai, emakume bezala jasan ditudan hainbat biolentzia forma azaltzen ditut. Hortik abiatuta interseksionalitatearen ideiarri heldu diot. Horren arabera, hainbat ezaugarriren konbinazioak determinatzen du gizartean duzun posizioa. Esaterako, ez

da gauza bera emakume eta gaztea izatea edo emakume, gazte eta etorkina izatea; edo emakume, gazte, etorkin eta lesbiana izatea. Azkenean, baretasuna ezin da irakurketa materialistatik bereizi.

Inkestek diotenez, emakumeak nagusi dira depresio kasuetan eta baita antsiolitikoaren kontsumoan. Zer nolako irakurketa egiten duzu horren inguruan?

Nire liburuan horri buruzko hausnarketa ere egin dut. Arestian esan bezala, baretasuna estatus baten adierazlea da eta hori eskuratzeko produktu ugari eskaintzen dira, botikak izan ala bestelakoak izan. Esaterako, farmazietan botikak ez diren gero eta “tratamendu alternatibo” gehiago eskaintzen dituzte. Bestalde, yoga, mindfulness eta horrelako jardueren gorakada ere aipatzekoa da. Aipatu produktu hauen kontsumitzaile nagusiak emakumeak dira; ez da kasualitatea, emakumeok emakume izateagatik jasaten dugun era guztietakoa zapalkuntzaren zama daramagu. Gainera, antsietatea kontrolatzeko botiken kontsumoari dagokionez, emakume etorkinak nagusi dira. Hemen,

klase zapalkuntzak eta genero zapalkuntzak bat egiten dute.

Duela gutxi martxoaren 8a izan da. Ez dago zalantzarik mugimendu feminista gorakada batean dagoela, zure ustez zeren ondorioa da?

Ez dut hori aztertu baina, nire ustez, hainbat faktoreren eragina da: mugimenduaren beraren autonomizazioa, zaintzaren krisiaren ez-tanda, indarkeria kasuen ikusgarritasuna eta sare sozialen iraultza. Horrek guztiak marko paregabea ematen du mobilizazioak oihartzun handia izan dezan.

Bukatzeko, mundu akademikora dedikatzen diren zorrotzarrak gutxi direla ematen du, zein da zure iritzia?

Galdera horrek Pierre Bourdieu soziologo frantziarra dakarkit gogora. "La Distinction" izeneko lanean frantziar gizarteko elite sozialaren erreproduzioa aztertu zuen. Agian, ariketa ona litzateke gaur egungo unibertsitateko irakasleen ibilbideari erreparatzea: non jaio ziren, non ikasi zuten, zein zen beraien gurasoen ogibidea... Adibidez, nire gurasoak biak irakasleak ziren, etxera joan eta etxeko lanekin laguntzen zidaten, telebista mugatuta neukan... Ikasteko zaletasuna klase eraiakuntza bat da oso. Eta, nola ez, ikasteko baldintza materialak behar dira: inor zure kargu ez izatea, lan egiteko beharrik ez izatea... Ziur asko Zorrotza eta Indautxuren artean alde handia dago, nahiz eta gure auzoan mundu akademikoan aurrera egin dutenak izan. Gobernuak salbuespen horiek azpimarratu ohi dituzte sistema justifikatzeko balio dietelako.



LABURREAN

Liburu bat

Virginia Woolf-en edozein liburu, adibidez, "A room of one's own".

Film bat

Monty Python-en "The meaning of life".

Pertsona adierazgarri bat

Pierre Bordieu soziologo frantsesa.

Ezagutu nahiko zenuken pertsona bat

Patricia Hill Collins, soziologo feminista eta aktibista afroamerikarra.

Zuretzat interesgarria den historiako pasarte bat?

Rosa Parks-en erresistentzia 1955ean bere lekua autobusean zuri bati ez ematean. Oro har, eskubide zibilen aldeko mugimendua.

Abesti bat?

Tracy Chapmanen "Talkin' 'bout a revolution".

Ezagutu nahi zenukeen herrialde bat?

Japonia.

cafetxinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

**AUTO ESKOLA
KAIKU**



Zorrotza Kastrexana, 1
Tfnfo: 94 427 88 10

**El
TO de
Fray Juan**

Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta aforiak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, kombinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

Maiatzak 3 osteguna

18:00 Liburutegian. **X. CLOWN ZORROTZA: IPUIN KONTALARIA: BEGO ALABAZAN: "Naturaren Magia"**

Maiatzak 3 ostirala

Azoka parkean. **X. CLOWN ZORROTZA: 18:30 GOITIBERA: "Yijaaa!!!"**
19:30 GANSO & Cía: "Babo"

Maiatzak 4 larunbata

Azoka parkean. **X. CLOWN ZORROTZA: 18:00 CIA. SINCRONACIDAS: "Oh limpiadas"**
19:00 MIREIA MIRACLE "Rojo"
20:00 LAS PRIMAS "Margarita is Dead"

Maiatzak 8, asteazkena

19:30 Auzo-etxean. **HITZALDIA**
Joaquín Cárcamo: "Los puentes de Zorrotza, 200 años de ingeniería sobre el Cadagua" Auzo Elkarteak antolatua.

Maiatzak 9, osteguna

20:00 Gaztetxean. **KONTZERTUA: SALVADOR AMOR ETA RAFAEL AMOR**

Maiatzak 16, osteguna

19:30 Udaltzegan. **ZINE ZORROTZA: "GENERACIÓN ANTI TODO".**

Maiatzak 17, ostirala

19:30 Gaztetxean. **ANTZERKIA: ANODINO TEATRO "Zerura eroria"**

Maiatzak 23, osteguna

19:30 Auzokan. **AURKEZPEN**
EKITALDIA: Argazki erakusketa: Udaltzategiaren Zorrotzako argazkiak. Auzo Elkarteak antolatua.

Maiatzak 31, ostirala

19:30 Auzokan. **ZINE ZORROTZA: "LA NOCHE DEL VIRGEN".**

Ekainak 8, larunbata

21:00 Gaztetxean. **KONTZERTUA: CLOACA LETAL + SUBVERSION X**

Ekainak 14, ostirala

20:00 Gaztetxean. **BAKARRIZKETA: PAMELA PALENCIANO: "No sólo duelen los golpes".**

Ekainak 15, larunbata

21:00 Gaztetxean. **KONTZERTUA "EZKERRALDEA ANTIFAXISTA: LOS FASTIDIOS + BOOT BOYS + BRIGADE LOCO**

Ekainak 22, larunbata

21:00 Gaztetxean. **KONTZERTUA: EUSKAL BATTLE. (Rap, Hip Hop)**

Bexamel bilkaria



Osagaiak: urdaiazpiko ondua, Yorkeko urdaiazpikoa, arrautzak, irina, esnea, ziazerba, perrexila eta ogi puxka bat.

Lehenengoz, bexamela egin behar dugu. Hauxe egiteko, arrautzak, irina eta esnea behar ditugu (zenbat eta gehiago bota, pintxo gehiago egin dezakegu). Eginda dagoenean, ziazerba txiki-txiki moztu, frijitu eta bexamelarekin nahastu.

Ondoren, Yorkeko urdaiazpikoa arrautzeztatu, eta bilkari bat egin. Bere barruan bexamela sartu. Ogi puxka baten gainean urdaiazpiko ondua jarri eta honen gainean bexamel bilkaria.

Bukatzeko, perrexila hautseztatu dezakegu.

Zailtasun maila: Ertaina.

Prezioa: 1,70 € + edaria.

AITOR TABERNA

Ordutegia:

9:00etatik 23:30ak arte (asteartean itxita).

Frai Juan, 10. Tel. 608742362 / 944740163

Espezialitatea: Itsaskiz betetako legatza txipioren saltsan.



Doinua:

Itsasoari begira

Garesko zubi eder hartatik

badator besteongana

Kilometroek markatzen dute

Galdutako iragana

Hitzetan ezin nezake kanta

Herri oso baten lana

Sarritan nahiko izaten baita

Begirada ta laztana

Erraza bezain konplikatua

Bizirik iraun izana

Asier Urkiza



Hariak.

Yoseba Peña. Susa. 2018. 352 orrialde.



Aita aberatsaren nahiaren kontra, Zarautzera ezkonduko da Irene, eta hantxe biziko du 36ko gerraren aurreko giro nahasia. 50eko hamarkada bukaeran, oihartzun urrun bat da gerra Xelilirentzat. Han eta hemen entzundakoeekin joango da osatzen gerrak kendu zionaren haria, eta senarrarekin eta ahizparekin ezagutuko du beste mundu baten aukera. Txiki fusilatzeotan direla panfletoak banatzea izango da Olatzen aurreneko ekin-tza politikoa. Handik gutxira hilko dute herrian guardia zibilen burua. Euskal Herriaren berrogeita hamar urteko intrahistoriari erreparatu dio Yoseba Peñak nobela honetan. Hiru belaunalditako emakumeen bidez, memoriaren transmisioan, justizian, kulpan arakatu du idazleak.



Striknina:

Ikasitako mugak (Music vs. Money records) 2019



Esparru komertzialetik at proposamen interesgarri bat aurkeztuko dizuegu honakoan. Striknina hirukotea Nerbioi ibarraren eskumaldetik dator, Leioatik hain zuzen ere. Hamar urte baino gehiagoko ibilbidea daukate eta euren burua punk-rock alternatibo bezala definitzen badute ere, koktelaren barruan hardcore ukituak ere nabarmentzen dira. "Ikasitako mugak" disko berria aurkeztu dute duela gutxi eta

handik hona zuzenekoetan murgilduta daude jo ta su.

Basauriko Burmuin estudioetan burutu dute lan berri honen grabaketa eta guztira 8 abesti eta bonus track kanta gehigarri bat aurkituko ditu entzuleak. Nahasketak eta masterizazioa aldiz, Bartzelonako North Wave Sound estudioko Jon Badi-ren esku egon dira.

Euren mezua helarazteko euskara zein gaztelania erabiltzen dute eta ez da batere arraro egiten hizkuntz binomio honen erabilera, izan ere estiloen aniztasunak bide ematen dio horri. Ahotsaren goxotasuna eta indarra, kitarra marrazki txukunak eta oinarri erritmiko pisutsua dira taldearen nortasuna definitzen duten ezaugarriak. Askotan, musika egiteko gaztelarazko "menos es más" esaera aproposa da eta Strikninen kasuan are gehiago. Hiru elementuk bat eginda, besterik ez.

Ibai Barrios



Taberna
AITOR
José eta Juan Carlos
Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96



1^o urte
ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!



ROCKET
TAVERN
Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...
FRAI JUAN, 8 - Tel 94 655 68 98



TABERNA
JATETXEA
L@S
LEON@S
Vicente Zabala parrokoa, 16

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidalguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Agur Xiberua

Hegoaldeko iparraldea ikusten dugun moduak kezkatzen nau.

Benidorm ingelesentzat bezalaxe?

Zuberoa, hitz potoloak euskaldunarentzat. Ia ia lur prometitua bezalako zerbait, apika. Larre berdeak, etxe zuriak... Wait. Martin Larralde zuberotarra al zen? Barka, otoi, hazpandarra bai. Ta non dago hori diozu? Jo tio, hain da goxia iparraldeko euskara. Asteburu honetan Zuberoara goaz Maskaradetara, etorri nahi? Bai, badakizu, airbnb-ko kontu honekin merke-merke aurkitu dugu lotarako apartamentua. Sekulako mauka!

Zuberoara joan eta erraza da oso maskarada zein pastoraletan hegoaldetarrak ezagutzea. Maiz eguzki betaurrekoekin topatuko dituzu, "borroka" itxura ezin txukunagoarekin eta nola ez, beti erdi-erdian. Maskaradetako goizeko barrikadetan zizka-mizka batzuk atera ohi dituzte antolatzaileek, publikoaren gozagarri. Hara hor hegoaldetarrak jakien mahaiaren ondoan, irensten hasteko abisuaren zain. Ikusizunak iraun bitartean, ordea, arreta handiz begiratuko diote, begirik bildu gabe ia. Aharrausi bat ikusiz gero ez hartu kontutan, alimaleko gozatua baino ez baitira hartzen ari. Buhameekiko fidakaitz, hegoaldetarra bere

tribuari lotuko zaio, babes eske. Tarteka ulertu ote duten galdetuko diote elkarri, begirada konplizeak botaz. Tira, ez asko. Bueno, gutxi. Ostia zu, beitu, Niko Etxart! Eta horrela ahituko dira antzerkiaren bi orduak, kantu eta dantzek osatutako mosaiko folklorikoa. Ondoren, agian taldeko bat dantzan irtengo da, zuberotarrek umiliatuko dutela jakinik. Afari herrikoia herrian eta hegoaldekoak, nola ez, izena emanda. Itxura denez, gero dantzaldia dago.

Eskual herri rock&roll-en lehenengo notekin batera lehertzen da dena. Denak buruari eragiten, gorputza ahalik bihurrien trabeskatur, alkoholak eragindako mugimendu bizarroak eginez. Seigarren bokalak ahoskatzen saiatuz. Anabasa sortu da ezerezaren erdian. Erorikoak, Pantxoa eta Peioaren doinuak goxatutako pogoak, irrist egiten duten mozkorrak. Ardo beltza alkandoran. Deabruak hartu antzean, epilepsiaren muga higitzen diren itzalak, izerdia eta bestelako isuriak. Begiak iteko melodia single bat. Negarrari eutsi ezinik. Agur Xiberua...

Hegoaldeko iparraldea ikusten dugun moduak kezkatzen nau. Biharamunean, saihestu ezinezko galdera, Benidorm ingelesentzat bezalaxe, Zuberoa ote da gure parke tematikoa? Hala bada, gure euskal egoari agian bai, baina herri ikuspegiari ez dio den mendreneko mesederik egiten

Asier Urkiza

Zure **2. LENTE**
PROGRESIBOAK
DOAN
Varilux barne.

* Sustapena indarrean arazoia ere erositak eta graduazio berdinarekin.

RPS: 213/18

ibaretaluxury
OPTICA


Vía gráfica
viagraficazorrotza@gmail.com
DisiNua



JONE

GOIRIZELAIA

BILBOTARRON NEURRIRA

Abokatua eta Eusko Legebiltzarreko
justizia eta lan batzordearen presidentea;
Bakea eta bizikidetzaren aldeko
militante gogotsua.
Koreografoa eta Athletic Clubeko
bazkide konpromisarioa.

Zurekin

BILBO

gara



EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Hizkera femenino eta maskulinoen esparruan sinismen eta uste ugari daude. Hizkera femeninoari buruz dauden usteak hauek dira:

- Hitz egitean emakumeek ez dutela gizonetzkoek duten jartotasuna.
- Emakumeek hizketa informala erabiltzen dutela.
- Hurrenkera logikorik gabeko hizketa. Pentsamendu logiko-matematikoa gizonetzkoena denez, gai batetik bestera "saltoka" hitz egiten dutela emakumeek.
- Besteen onespina behar dutela emakumeek bere hizketarekin jarraitzeko.
- Bere sexu/generoari "dagokiola" hitz egiten egon beharrean entzutea, rol pa-

sibo-hartzailea "beraiena" den heinean.

- Konpetentziazkoak baino kooperaziozko estrategien erabilera. Konpetitibitatea balio maskulinoa omen da, arlo publikoa maskulinoa omen den bezala.

Ikus daitekeenez, hizkera femeninoaren ezaugarri hauen atzean pentsamolde patriarkala/androzentrikoa agertzen da, rol femeninoa eta maskulinoa zehazten dituen, bakoitzari portaera eta balio jakin batzuk emanez, sexu/genero bereko pertsona guztiak arau orokortzaileen bidez berdinu nahian.

*Euskara hizkuntza sexista al da?(2004)
Amaia Alvarez Uriaren erreportajetik aterata*

SALAKETA ARGAZKIA



Azoka parkerako burdinezko txorkorik ez

Auzo Elkarateak askotan eskatu badu ere, Udalak uko egin dio eskaerari eta parkeko zuhaitzek ez dute txorkorik.

Gauzak horrela, zailagoa da zuhaitzen sustraia garbi mantentzea, eta zikinkeria lurrean pilatzen da askotan.



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefona: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefona: 94 442 17 12

Regalos
Omega

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalles.com



burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86

Osasuntsu dagoen auzoa, bizirik dagoen auzoa da!

Bigarren aldiz Auzoka Komunitate Zentroak Osasunaren Astea ospatuko du maiatzean.

Auzo Elkarteak, erakundeak, Merkataritza eta ostalaritza elkartearen kolaborazioarekin aste betez osasunaren arloko ekintzak antolatuko dira, gaia desberdin asko jorratuz. Maiatzaren 5ean mendi irteera bat antolatuko da, elikadurari buruzko solasak, haur eta gazteentzako tailerrak, gymkhanak, dantza saioak... Adin guztietarako eta pertsona ororen beharrak kontuan edukita.


Ekintza guztiak doan izango dira, gauza berriak probatzeko aukera paregabea! Laster,

II. EDICIÓN DE LA
"SEMANA DE LA SALUD"
ZORROTZA 2019

AUZO
OSASUNGARRIA,
AUZO BIZIA

Auzokaren sareetan eta auzotik zehar zabalduko ditugun karteletan ezaugarri guztiak izango dituzue eskura!

Auzokide osasungarriak behar ditugulako, goza ezazu Osasunaren II. Astea!



**¡Kasi
Mi Kasi!**

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
📧 sietecampas@gmail.com



Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
📧 014159aa@hezuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
☎ 94 439 97 41
📧 015078aa@hezuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezuntza.net



Marta

Ez, diruaren kontuagatik. Ez dut uste hainbeste diru emango dutenik hain denbora gutxian. Luzamendutan ibiliko dira orain arte bezala.



Eugenio

Nire ustez bai. Diruaren erdia eman dute jada, eta hitza beteko dutela espero dut.

FEVE geltokiaren lurperaketa

Oraingo honetan behin betikoa izango dela uste duzu??

Narrea Peña



Elena

Uste dut oraingo honetan behin betikoa izango dela, bai. Baina hondeamakinak ikusi arte ez dut sinetsiko!! Bada garaia Zorrotzaz gogoratzeko Bilbon!!



Alejandro

Ez. Oraindik diru pila falta da. Dena sinatuta egon arte ez dut sinetsiko.



Maite

Nik uste dut baietz. Auzokideak hainbeste ahaleginak egin ondoren (manifestazioak, protestak, eta abar) kasu egingo digutela espero dut!!!



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

SUPER ZINEA

BASURTU-ZORROTZA

MAIATZA - MAYO

CENTRO MUNICIPAL BASURTU UDALTEGIA 18:00

(EUSKERAZ / FAMILIENTZAT - PÚBLICO FAMILIAR)

EGUAZTENA 15 MIÉRCOLES

"ALBERT". ZUZENDARIA: KARSTEN KIILERICH

EGUAZTENA 29 MIÉRCOLES

"SAGU ETA PAGU". ZUZENDARIA: ENGIN BASTÜRK

CENTRO MUNICIPAL ZORROTZA UDALTEGIA 19:30

(HELDUENTZAT / PÚBLICO ADULTO)

EGUENA 16 JUEVES

"GENERACIÓN ANTI TODO". DIRECTOR: IÑIGO COBO

CENTRO MUNICIPAL BASURTU UDALTEGIA 19:00

(HELDUENTZAT / PÚBLICO ADULTO)

EGUENA 23 JUEVES

"FABRICANDO MUJERES"

DIRECTORAS: PAULA IGLESIAS, ANA SERNA

CENTRO COMUNITARIO ZORROTZA 19:30

(HELDUENTZAT / PÚBLICO ADULTO)

BARIKUA 31 VIERNES

"LA NOCHE DEL VIRGEN"

DIRECTOR: ROBERTO SAN SEBASTIÁN

KULTURA
BARRUTIK

B

Bilbao



WWW.KULTURABARRUTIK.EUS



X. CLOWN ZORROTZA

MAIATZA 2019 MAYO



WWW.BILBAOKULTURA.EUS

Arri
arrigorriaga
UDALA - AYUNTAMIENTO

KULTURA
BARRUTIK

B

Bilbao